



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Marcelino Bazterrica Alchu
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera
Carmelo Ayoroa Hualde
Pedro José Alchu Ariztegui

2014ko otsailaren 13an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. G.A.M.k lizentzia eskatu zuen, Aurtizko UB 3an eraiki duen etxebizitza ur-sareari lotzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki dute ur-sareari lotura egiteko baimena ematea A. jaunari, baldintza hauekin:

- Etxearen sarreran arketa eraikitzea eta bertan ontza (pulgada) erdiko ur-kontadorea jartzea.
- Harguneari eta lotuneari dagozkien tasak ordaintzea (Ordenantza fiskala, Udalaren ur banaketa eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko tasak arautzen dituen).

Milagros Erreguerena eta Carmelo Ayoroa sartu egin dira.

2. 2012ko urriaren 4ko Osoko Bilkuran lizentzia eman zitzaioan M.E.V.ri, 2 balkoi eraikitzeko *Apeztegia* etxeko bigarren solairuan, larraina aldera dagoen fatxadari, obrak hasi baino lehen obra-proiektua aurkezteko baldintzapean. Udal-araudiak jartzen duena bete behar dela ere jarri zen baldintzen artean. Proiektua aurkeztu zuen 2013ko uztailearen 31n bere senarraren izenean, R.U.O.

Apeztegia etxea Interesa duten Eraikinen Katalogoan sartua dago, 2. babes mailarekin eta nolatan esku hartu ahal izateko, Kultur Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeko Ondare Arkitektonikoaren Atalaren aldeko txostena behar da. Proiektua aurkeztu eta gero eskatu zen txosten hori eta obraren kontrakoa izan da. Horrek, erabat deuseza bihurtu du emandako lizentzia (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62.1 e) artikulua).

Aurrekariak ikusirik, eta 30/1992 Legearen 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. *Apeztegia* etxeko bigarren solairuan 2 balkoi eraikitzeko emandako lizentzia deuseztat jotzeko prozedurari hasiera ematea, legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman zelako: Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostena nahitaezkoa eta loteslea da; lizentzia txostenarik gabe eman zen eta geroago emandako txostena, obraren kontrakoa izan zen.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Erabaki honen berri ematea espedientearen interesatu bezala agertzen diren guztiei eta 15 laneguneko epea jartzea, Udal honen aurrean agertu eta bidezko iritzitako guztia alegatzeko.

3. Aldeko irizpena eskatzea Nafarroako Kontseiluari.

Milagros Erreguerenak ez du erabaki honetan parte hartu.

3. Jarraian, J.J.E.V.k aurkeztu zuen idazkia irakurri du idazkariak. *Apeztegia* etxeke bigarren solairuan obrak egiten ari direla salatu du, obra horiek lizentziarik daukaten edo ez galdetu du, etxeke sotoan dagoen zerra mekanikoaren soinuak molestatzen diola dio, eta arauak betearaztea eskatzen du.

Milagros Erreguerenak, etxearen jabea, hitza hartu du eta esan du *Apeztegia* etxeke bigarren solairuan obrak egiteko asmoa daukatela baino oraindik ez dituztela hasi. Sotoan dagoen zerrari buruz esan du, berriz, hobbyrako erabiltzen duela bere senarrak.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da J.J.E.ri jakinaraztea ondoko hau:

1. Jabeak adierazi du *Apeztegia* etxeke obrak ez direla hasi.

2. Zerra mekanikoaren gaian ez du Udalak arau-hausterik ikusten, jarduera ekonomiko bat garatzen ez den bitartean.

Milagros Erreguerenak ez du erabakiaren bozketan parte hartu.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. HIRIGINTZA HITZARMENA. AURTIZKO U.B. 3.

Iturengo Udalak, 2013ko azaroaren 7an egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea hirigintzako hitzarmena G.A.M. eta I.P.E.kin, espedientearen abiarazteko baizik ez. Hitzarmen horren bidez, UB 3an utzi beharreko lurzoruko zati bat eskudiruko ordainketarekin aldatzen da. Espedientearen jendaurrean egon da, 2013ko abenduaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (236. zenbakia) eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki dute:

1. Behin-betiko onespina ematea hirigintza hitzarmenari.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Ahalmena ematea alkateari, María José Bereau Baleztena, hitzarmena sinatzeko G.A.M. eta I.P.E.kin.

3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onespén hau.

4. ZENBAIT ESKAERA.

1. Lesakako Notaritzako Nabaritasun-akta irakurri du idazkariak. J.S.A.k finka inskribatu nahi du aktaren bidez (1 poligonoko 84 partzela). Komunalarekin mugatzen duela ikusirik, Udaltzarak aho batez erabaki du Komunaleko Sailari bidaltzea, beharrezkoa den txostena eman dezala eskatuz.

2. Iruñako 5. Jabetza Erregistroko Ediktua irakurri du idazkariak. F.G.A.k finka inskribatu du bertan (3 poligonoko 323 partzela). Komunalarekin mugatzen ahal duela ikusirik, Udaltzarak aho batez erabaki du Komunaleko Sailari bidaltzea, beharrezkoa den txostena eman dezala eskatuz.

3. Iruñako 5. Jabetza Erregistroko Ediktua irakurri du idazkariak. J.J.U.S. eta beste batzuk hainbat finka inskribatu dituzte bertan (1 poligonoko 60 partzela, 2 poligonoko 132 partzela, 2 poligonoko 213 partzela, 2 poligonoko 259 partzela, 2 poligonoko 266 partzela eta 2 poligonoko 299 partzela). Batzuk komunalarekin mugatzen dutela ikusirik, Udaltzarak aho batez erabaki du Komunaleko Sailari bidaltzea, beharrezkoa den txostena eman dezala eskatuz.

Pedro José Alchu sartu da.

4. E.C.C.k eskatu zuen, *Herriko Ostatuko* errentamendu-kontratua hartzeko jarri zuen fidantza itzultzea. C. andreak 1.244,01 euro zor dizkiola Udalari ikusirik eta Udalak berari 339,60 euro, aho batez erabaki da, 1.095,59 euro itzultzea C. andreari. Gainerako diru-kopurua fakturak konpentsatzeko erabiliko da.

5. Bestalde, A.M.E.A.k *Aurtizko Ostatuko* errentamendu-kontratua hartzeko jarri zuen abalaren gaia eztabaidatu dute. 3.000 euroko abala jarri zuen E. andreak, Caja Rural de Navarrakoa. Udalak ostatuko argi-indarreko eta gasako faktura batzuk ordaindu zituela ikusirik, aho batez erabaki da Caja Rural de Navarrari eskatzea abalaren zati bat gauzatzea (1.636,89 euro), faktura haien ordainketa konpentsatzeko. Abalaren gainerako diru-kopurua indargabetzeko baimena eman da.

6. G.L.M.k baimena eskatu du, Ortzadar Euskal Dantza eta Folklore Taldearen izenean, Udaletxeko ganbara erabiltzeko otsailaren 23an, ikuskizun baten entsaio orokorra egiteko. Baimena ematea erabaki da aho batez.

Mikel Gereka sartu da.

7. T.P.N.k idatzia aurkeztu zuen neurriak hartzeko eskatuz, Kontseilu kalearen estutasunak sortzen dituen arriskuak sahisteko (kamioi batek jo zuen *Maizenea* etxeko balkoia). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Herrilan Zuzendaritzari eskatzea, Iturengo zeharbidearen egoera aztertu eta txostena egitea, trafiko-arazoak konpontzeko irtenbideak proposatuz.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

8. J.A.I.U. eta beste batzuk aurkeztu duten idatzia irakurri du idazkariak. Erantzuna ematen diote bertan, 2013ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran Udalak hartutako erabakiari, ondoko hau adieraziz funtsean: Udala jabetza pribatuen arteko aferan sartu da berriz; erabakiarekin ez daude ados; egurra beraien jabetzan dago, katastroan agertzen den moduan. Eremuko jasotze topografikoa egitea eskatzen diote Udalari, mugak argitzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ondoko hau jakinaratzea eskatzaileei:

- Mugarri funtzioa egiten duen tokona jartzeko baimena behar da eta baimen hori ez dago Udalaren eskumenetan.

- Udalak ez du Katastroa aldatu eremu horretan, ez da jabetza pribatuen arteko aferan sartu (2 poligonoko 269 eta 270 partzelen arteko muga), ez du jabetza pribaturik inbaditu eta ez da jabeen arteko afera honetan sartuko ere. Zerbait gertatzen baldin bada hor, ez da Udalaren ardura izango.

- Eremuko jasotze topografikoa egitea ez da beharrezkoa ikusten une honetan, diru egoera larrian ordainketa bat egitera behartzen duelako.

9. J.I.V.E.k baimena eskatu zuen *Bolatxikin* erori diren 3 arbol aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki dute V. jaunari saltzea arbolak, 50,78 eurotan.

10. S.B.B.k baimena eskatu zuen *Ameztian* erori diren 3 arbol aprobetxatzeko. Aho batez erabaki dute zuhaitzen balorazioa eskatzea basozainari, eskatzaileari saltzeko arbolak gero.

5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko urtarrilaren 3koak, *Herriko Ostatuko* eta *Aurtizko Ostatuko* ordutegia handitu zuena Errege bezperarako; 2014ko urtarrilaren 23koak, *Herriko Ostatuko* eta *Aurtizko Ostatuko* ordutegia handitu zuena Inautetarako; 2014ko otsailaren 3koa, *Aurtizko Ostatuko* irekitzeko lizentzia eskualdatzeko baimena eman zuena; 2014ko otsailaren 11koa, 1 poligonoko 103 partzelan etxebizitzarako birmoldatu duen borda, lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona J.M.A.ri.

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Langile langabetuak kontratatzeko diru-laguntzen murrizketaren berri eman du idazkariak. Horren ondorioz, kontratuen iraupena eta lanaldia murriztea erabaki da.

2. Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman duen epaiaren berri eman du idazkariak (1047/2013 zenbakia). Iturengo Udalaren Plan Orokorra behin-betiko onetsi zuen, Sustapen eta Etxebizitzako Kontseilariaren 98/2011 Foru Agindua, baliogabetu du epaiak. Jakinaren gainean geratu da Udalbatza.

Ondoren, Markos Erro letratuarekin eta Chocarro eta Urmeneta arkitektoekin izandako bileren berri eman da.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. Nafarroako Auzitegi Administratiboak eman duen ebazpenaren berri eman du idazkariak (13-04090 zenbakiko gora jotzeko errekurtoa). P.M.E. jaunak jarritako errekurtoa onartu da eta ondorioz, Latsagako UE 2 unitateko borondatezko birzatiketa proiektua eta urbanizazio proiektua onetsi zituen erabakia baliogabetu da. Jakinaren gainean geratu da Udalbatza.

4. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.S., J.I.V., J.M., J.A.A. eta A.E.k egindakoak—; larreak erretzeko baimenak —J.I.V. eta I.B.ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioaren jakinarazpenak —J.M.I. eta M.L.k eskatutako obrak—; Lurraldearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 7/2014 ebazpena, hertsatzeko isuna jarri ziona F.E.ri; Lurraldearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 76/2014 ebazpena, hirigintzako legezketasunaren babesarako espedienteari eta espediente zigortzaileari hasiera eman ziona, J.A.E.ren aurka; J.M.F.ri emandako baso-aprobetxamenduko baimena; J.C.E.k Ostatuko atzealdean eraiki duen teilatutxoaren kostua.

7. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:45ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.